

Galdera

Zelan da euskaraz vientre de alquiler?


Erantzuna

alokairuko sabela edo, modu jasoagoan, ***haurdunaldi subrogatua***.

1/ Horiek dira termino hedatuena; estandarizatu samarrak dira, eta maiz erabiltzen dira hedabideetan. Hemen dituzu esteka batzuk:

- Bideoa: [haurdunaldi subrogatua ala alokairuko sabela, aldeko eta kontrako iritziak - EITB](#)
- [alokairuko sabela – Kaixomaitia.eus | Bloga | Saltsa badago!](#)
- [Sabelekoak \(alokairuko sabela bidez...\) | Iritzia | Berria](#)
- [haurdunaldi subrogatu - Euskalterm](#)

Euskalterm Terminologia Banku Publikoa da, eta Terminologia-batzordeak ponderazio-markak erabiltzen ditu termino baten egokitasuna nabarmentzeko:

- 0 Baztertu beharreko terminoa (Terminologia Batzordeak onartzen ez duena)
- 3 Terminoa onartua (baina ez lehenetsia, beste bat gomendatzen delako)
- 4 Terminoa behin-behinean normalizatua/gomendatua (Terminologia Batzordearen onespeneraren zain)
- 4  Terminoa normalizatua-gomendatua

Beraz, ***haurdunaldi subrogatua*** terminoa normalizatu eta gomendatutzat jotzen du Euskaltermek, eta ***alokairuko sabela*** ere zuzena da, gure iritzian.